

Donostian, Diputazioan, bildu dira: I. M.^a Etxaide jauna, buru, Mitxelena, Arrue eta Lekuona jaun euskaltzaiñak. Zabala, Zugasti, Zubizaray, Loidi, Apraiz eta Irigoyen jaun urgazleak

Irigaray eta Villasante-k ezin etorria adierazo dabe.

Oi dan otoitzagaz asi da batzarra.

Aurreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Uztaritzen Aguztuaren 30-ean emendik joandako eta ango euskaltzain eta urgazleak bildu zirean omenezko jaietan, baiña etzan batzarrik egin.

Fernando Aizpurua Deva-ko jaunaren karta bat irakurri da. Bere errian bertso-larien txapelketea egin genduanean juradukoakana urreratu zirean bera eta beste batzuk kartan diñoana gitxi gora bera esateko. Asmo bategaz dabiltz: datorren udaberrian Deva-ra Gipuzkoako umeak kristiñau-dotriñazko erromeri batean eroan gura leukiez eta bide batez euskal jai batzuk egin. Euskaltzaindiaren laguntasuna izango leukien jakin gura dau. Euskaltzaindia prest daukie al dauen bestean laguntzeko euskerari jagokon arloan. Alan erantzun bekio.

Irigoyen jaunak berari Ondarroa-ko alkateak zuzendu deutsan karta bat irakurri dau. Ondarroa-ko eskoletan euskal klaseak ipiñi gura dituez eta ze gramatika eta liburu erabiltea komeni dan jakin gura leuke. P. Zamarripa-n gramatika eta *Kresala*, *Ipuin barreka*, *Zirikadak*, *Patxiko txerren* eta *Euskalerritik zerura* aipatu dira, momentu aretan gogora etorri direan liburuak.

Irigoyen-ek Aita Villasante-k zuzendu deutsan karta bat irakurri dau. Axularren liburua argitaratzearen gaiñean barri batzuk emoten ditu.

Bertsolarien txapelketen gaiñean berba egin da. Egin direanak dira: Azpeitin Aguztuaren 2-an, Manuel Lazcano txapeldun; Oiartzunen Aguztuaren 4-an, Cosme Lizaso lenengo eta Jose Luis Lecuona "Lexoti" bigarren; Iyorrren Aguztuaren 12-an, Basilio Pujana txapeldun; Goizuetan Aguztuaren 26-an, Juan Lopategi txapeldun eta Juan Azpillaga bigarren; Vera-n Irailaren 23-an, Mikel Arozamena txapeldun eta Mikel Zabaleta bigarren.

Eibarren eta Hernani-n egin gura dira Gipuzkoako azken txapelketa biak. Donostiako Ahorro Kaxa biai eskatu bekie laguntasuna sariak orniduteko erriak emongo leukienaz gaiñera.

Oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.

I. M.^a Etxaide

L. Mitxelena